

GURE ESKUBIDEAK

BERDINTASUNA



Gure kultura, erlijioa, jatorria, hizkuntza zein sexua dela eta, modu desberdinean tratatuak ez izateko eskubidea dugu.

ART: 2, 4, 30

NORTASUNA

Jaiotzean inskribatuak izateko, izena eta nazionalitatea edukitzeko, gure gurasoak ezagutzeko eta beraiek zainduak izateko eskubidea dugu.



ART: 7, 8

FAMILIA

Maite eta orientatzen gaituen familia izateko eskubidea dugu, familiarik banatua ez izateko eskubidea dugu gure ongizaterako beharrezkoa denean ezik, eta familiak hori lor dezan Estatuak lagundu dezala.



ART: 4, 5, 9, 10, 16, 18, 20, 21



OSASUNA

Osasun arreta jasotzeko eta ohitura osasuntsuak garatzeko eskubidea dugu, drogarik gabe, eta kutsadurarik ez duen toki atsegina batean bizitzeko.

ART: 6, 24, 25, 26, 33

PARTE HARTZEA

Gure iritziak adierazteko eta horiek gure familia, hezitzaile eta agintariak kontuan har ditzatela, eta gudan eragina duten gaiaren inguruko informazio egokia jasotzeko eskubidea dugu.



ART: 12, 13, 14, 15, 17

BABESA GATAZKA EDO HONDAMENDI GARAIETAN

Bakean bizitzeko eskubidea dugu, soldadu gisa errekrutatuak ez izatekoak eta errefuxiatua zein hondamendi naturalen biktima izanik babes berezia jasotzekoa.



ART: 22, 38, 39

ABUSUEN AURKAKO BABESA

Tratu txarren, irainen, sexu-abusuen eta bahiketen aurka babestuak izateko eskubidea dugu.



ART: 19, 34, 35, 36

LAN KALTEGARRIAREN AURKAKO BABESA

Gure osasuna, hezkuntza edo garapena arriskuan jartzen dituen edonolako lana burutzearen aurka babestuak izateko eskubidea dugu.



ART: 32, 35

HEZKUNTZA

Mundu osoan giza eskubideen betetzeaz arduratzen diren hiritar bilakatuko gaituen doako eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dugu.



ART: 27, 28, 29

ASKATASUN-GABETZE KASUAN BABESA

Espetxeratze kasuan, helduengandik banaturik egotea, gure familia ikusteko, legalki defendatuak izateko, heriotza zigorra zein biziarteko kartzela-zigorra betetzera kondenatuak ez izateko eta torturatuak ez izateko eskubidea dugu.

ART: 11, 37, 40



MINUSBALIOTASUNEN BAT DUTEN ADIN TXIKIKOEN BABESA

Minusbaliotasuna dugun adin txikikook, osotasunezko bizitza gozatu ahal izateko, arreta eta hezkuntza berezia jasotzeko eskubidea dugu.

ART: 23



JOLASA

Garatzeko eta jolasteko denbora, lagunak eta esparruak izateko eskubidea dugu.



ART: 31

Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena lege-testu bat da eta munduko 18 urtetik beherakoen eskubide guztiak barne hartzen ditu. Berrogeita hamalau artikulua ditu eta Gobernuak horiek betetzeko konpromisoa hartu dute.

1989ko azaroaren 20an onartu zen, eta ordutik, azaroaren 20an Haurren Eguna Unibertsala ospatzen da, urtero.

Hitzarmenari esker, azkenik, eskubideak dituzten gizakitzat jo ziren haurrak. Agintariak edo helduek haurren bizitzarekin zerikusia duten erabakiak hartzen dituztenean, horien garapenerako eta ongizaterako onena dena egin beharko dute.

Gobernuak ahaletzen guztiak egin behar dituzte haurren eskubideak bermatzeko eta beste herrialde batzuekin lankidetzan aritu behar dute horiek betearazteko. Gainera, familiei laguntza eman behar diete haurren eskubideak bete daitezen bermatzeko.

UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa da eta bere zeregin nagusia da munduko haur guztiek euren eskubideez goza dezaten lortzea, eta horietatik eratorritzen diren erantzukizunak beren gain har ditzaten ahalbidetzea.